



Hautsi ala
bete?

Udako oporren ostean, hemen gaituzue berriro! Berriz ere, zuen haurrengan, irakurketarekiko gozamina sustatu eta irakurzaletasuna indartzeko asmoz!

Ez ahaztu, eskolaz kanpo ematen den etxeko giroak irakur zaletze prozesuan izugarrizko garrantzia duela ikasleari irakurle bidea eraikitzen laguntzeko.

Hori horrela, jarrai dezagun beraz, bidea egiten!



“Irakurketak oraindik ere badu zentzua irakurtzen duten haur eta gazte askorentzat ... izan ere, beraien barne mundua eraikitzeko baliabide egoki bezala ikusten dute eta kanpoko munduarekiko lotura bezala erabiltzeko balio die irakurketak.” (Pereira: 2007; pag 39).

1. ALDIZKARIAREN AZALA AZTERTZEN

Azala garrantzi handiko baliabidea da haurra aldizkarian murgiltzeko, izan ere, azaleko irudi eta letrek haurra irakurtzera erakartzeko balio izaten dute.

Kasu honetan ere, hala da! Beraz, aprobeitza dezagun azala!

Hona hemen aldizkaria irakurtzen hasteko aholku batzuk:

-Utzi aldizkaria, opari gisara, haurraren ohe gainean eta ireki dezala berak.

-Utzi berari irakurtzen, arakutzen, aztertzen, hala ere, ez urrundu, jarri bere alboan eta zirikatatu haurra pixka bat:

-“Zer gertatzen da irudi honetan?”



hautsi ala
bete?

- "Barrez ala negarrez ari dira?" Zer uste duzu
- "Zergatik uste duzu negarrez ari dela?"
- "Nik aspaldian ez dut negarrik egin! Eta zuk?"
- "Zergatik egiten dugu negar normalean?"
- ...

zuk?



Txupetearen irudiari egin oraingoan erreferentzia:

- "Zer da hori? Ba al dakizu zer den? Ez zaizu ezaguna egiten?"

Erakutsi iezaiozu debekua adierazten duten irudien adibide batzuk eta adibide horiek erakutsi.

Ondoren jarraitu esaldia aztertzen:

- "Hautsi ala bete" ... "Zer hausten dugu guk?" "Eta bete?"
- "Zer esan nahi du arauak betetzea?"
- "Arauak bete ala hautsi egin behar direla uste al duzu? Zergatik?"

Gai honetan murgildu nahi baduzu, aurkitu zure kabuz, arauak hautsi edo betetzearen inguruko informazioa eta erakutsi haurrari!

2. HAZI HEZI!

Utzi haurrari irudia aztertzeko denbora eta gero galdetu:

- "Zer ikusten duzu irudi honetan?"
- "Emakume bat haurdun dago, ezta?" Eta zergatik uste duzu ari dela gizona haren tripari hozka egiten?"
- "Erditu ... zer esan nahi du?"



hautsi ala
bete?

- “Zein ezberdintasun dago Hazi eta Hezi hitzen artean?” Azaldu, nahi duzun moduan, adibide, irudi edo bestelakoen bitartez, bi hitz horien arteko ezberdintasuna.

3. AURKIBIDEA

Ikasturte hasierako aldizkaria esku artean dugula, hara non aurkituko dugun gure aldizkariari begirada orokor bat emateko baliagarri egingo zaigun beste tresna bat: aurkibidea!

Ez pasa orria! Gelditu! Eta irakurri patxadaz!

Lagundu zure haurrari aurkibidea irakurtzen, esaiozu zertarako balio duen!

Zure laguntzarekin aztertu aurkibidea. Hona hemen baliagarriak izango zaizkizun galdera batzuk:

- Zer ikusten duzu atal honetan?
- Zuri zer iruditzen zaizu? Zein agertuko dira?
- Izenburua, “hautsi ala bete” da! Zer esan nahi ote du horrek?
- Badago zerbait zuk batzuetan hautsi eta beste batzuetan betetzen duzuna?
- ...

ANIMO BERAZ!!!

4. MARTIN BERTSO

Martin Bertsoren atala kantuan egingo oraingoan! Zeuk irakurri/kantatu beharko diozu komikia. Hala ere, jarri dadila haurra ondoan eta irakurri eta kantatzen diozun bitartean, berak



dugu

zuk
ere,



hautsi ala
bete?

irudiak ikusi eta azter ditzala, komikia hobeto ulertzeko.

Komikia irakurri/kantatu ondoren, galdetu haurrari ea zer gustatu zaion komikitik gehien.

Horrez gain, galdetu ea berak irakurri/kantatu nahi duen, eta hala bada, ekin berriz ere jokoari!

5. FILOSOFO TXIKIAK

Gure lagunek atal honetan, egin ahal ditugun gauzen inguruan eta debekaturik ditugunen gainean hitz egiten digute. Haurrak gaia ondo uler dezan, utzi haurrari lasai irakurtzen.



Irakurtzen amaitzen duenean, irakurritakoaren inguruan zerbait kontatu nahi dizun galdetu.

Ondoren, irudia aztertu eta galdetu haurrari:

- *“Zergatik uste duzu jartzen direla debekuak?”*
- *“Debekurik gabe hobeto biziko al ginateke?”*

Ondoren, animatu haurra, filosofo txikien komikiari beste amaiera bat ematera! Ez bazaio ezer bururatzen, zeuk lagundu.



Hautsi ala
bete?

6. PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTX

ZENBAT KOSTATZEN DEN IKASTEA!

Eta zenbat kostatzen den irakastea, ezta?

Utziozu haurrari lasai-lasai irakurtzen edo irudiak ikusten eta jarraian egin galdera batzuk:

- Zer gertatu da? Ba al dakizu?
- Zergatik haserretu da harakina?
- Pupu eta Lore gaiztakerietan ari dira?
- ...

7. ZENBATAK

Begira nor ditugun hemen! ZENBATAK!

Jarri gaitezen gure haurraren ondoan eta irakurri dezagun berarekin batera!
Gustu handiz hartuko du gure konpainia!

Lasai-lasai irakurketa konpartituz, honako galdera batzuk egin ditzakegu :

- Zergatik deitzen dira ZENBATAK? Zuk badakizu? Ea amaitutakoan asmatzen dugun zergatik den, bai?
- Begira ditzagun irudiak gainetik! Ea zer ikusten dugun!
- Zertan ari dira? Zer gertatu dela uste duzu? Zerbait gaizki egin dute?
- Irakurri dezagun ea zer gertatu den.

Ez ahaztu, guk proposatu besterik ez dugula egiten, eta haurrak, ez badu nahi, ez dugula derrigortuko! Ados? Bestelakoan, kontrakoa lortuko dugu, hau da, irakurtzeari muzin egitea.



Hautsi ala
bete?

8. LAGUN

Umeak nondik datoz? Galdera erantzutea zaila ote? Oraingo honetan Lagunek lagunduko digu erantzuna topatzen.

Atal honetan ere irakurketa konpartitu bat egitea proposatzen dugu.

Irakurri aurretik honako galdera hauek egitea proposatzen dugu:

- Zure ustez, umeak nondik datoz? Zu nola sortu zinen badakizu?
- Ea, has gaitezen irakurtzen!

Irakurri bitartean:

- Ados zaude mari mototsek esaten duenarekin?
- Zure ustez Pupuk eta Lorek esango die nondik datozen?

Irakurri eta gero:

- Irudiak asko laguntzen dute zerbait azaldu nahi dugunean, ezta? Hartu irudiak eta azaldu zure haurrari naturaltasun osoz nondik gatozen; haurrak nola sortzen diren.
- Kontuan izan haurraren adinaren arabera, zenbait gauza ez dituela ulertuko. Kontu izan!
- ...

9. POSTERRA

Dagoeneko badakigu posterrak ez direla horman itsasteko bakarrik! Irudimen pixka batekin oso ondo pasatuko dugu. Hona hemen gure proposamena.

- Irudiez baliatuz asmatu ipuin txiki bat!
- Jarraian, jarri idatzita liburu baten formako liburuxka txiki batean!
- Gorde ipuina eta beste egunen batean konta iezaiozu!



hautsi ala
bete?

10. LARGABISTA

Gure lagun Largabistaren komikia bion artean irakurriko duzue. Batek, Largabistaren papera har dezala eta besteak Mari Mototsena.

Hala ere, irakurri aurretik, eman begirada bat komikiari bion artean, eta galdetu haurrari:

-Non daude gure lagunak? Baserrian? Kalean?

-“ Zerk deitzen dizu arreta?”

-Zer duzu gogokoen irudietan?

Galdera hauen ondoren, irakurtzera!

Irakurri ondoren, galdetu haurrari:

-Zertan jardun dute gure lagunak?

-“ Zer kontatu digute Lizarraren inguruan?”



11. LANDABISTA

Oraingo honetan, lizarra izango dugu aztergai! Ezertan hasi aurretik, saiatu lizarraren irudiak, marrazkiak aurkitzen eta irudi bilaketa egin ostean, eman opari modura. Adibidez: kaxa baten gordeta, kaxan LIZARRA izena jarritz!

Utzi denbora marrazkiak begiratzeko eta ondoren esan:

- Irudi eta marrazki horiek lizarrak

dira!

- Ba al dakizu zer den lizarra?

- Ea zer dioen testuak lizarrari buruz!





Hautsi ala
bete?

12. **MARIKALANBRE**

Iritsi gara Marikalanbreren atalera! Atera dezagun aldizkaria kalera!

Haurra parkean jolasten ari denean, egin ezazu tartetxo bat irakurtzeko. Askotan, zerbait ulertu behar dugunean, inguruak asko laguntzen digu ezta? Beraz, haurra bizitzen ari den errealitateaz baliatuko gara Marikalanbrek esaten duena ulertzeko!

13. **ANE PIRATA ETA PATAKON**

Zertan ote dabilta oraingoan Ane Pirata eta Patakon? Hona hemen gure proposamena:

Egin kartulina batean dortoka baten marrazki bat.

Jarraian, irakurketa konpartituz, komikia laburtzen duten hitzak hautatu eta dortokaren inguruan idatzita jarri! Adibidez: euskara, borroka, Euskal Herria ...

Istoriaa amaitu ez denez, gorde kartulina!

14. **PUPU ETA LORE**

Pupu eta Loreren atala, bion artean eta bertsotan irakurtzea proposatzen dizuegu! Hala ere, ez duzue bertsotan bakarrik egin beharko; izan ere, bertsoek diotena ere egin beharko duzue: besarkatu, musu eman, esku finez laztandu ...



Gogoratu, irakurtzea jolastea ere badela! Jolas amaigabe bat!



HAUTSI ALA
BETE?

15. SOINEKO ETA ASMO BERRIAK

Kontatu zure haurrari zer berri dauden Irrien Lagunak Klubean! Jarraian, argazkiak ikusteko denbora utzi!

16. IRRIEN LAGUNAK KLUBA

Atal honek ZENBATAK atalaren nondik norakoen berri ematen digu. Irakur iezaiozu zure haurrari!

17. OLIBATXO

Olibatxoren atala irakurtzeko, jarri musika pixka bat haurrari, musika lasaia! Musikak zentzumenak pizten ditu eta irudimena loratzen du!

Musika jarri eta eseri leku atsegin batean. Zein da zuen lekurik gustukoena? Egongela, sukaldea, lorategia? Aukeratu bat eta musikaren laguntzaz, hasi irakurtzen! Galdetu haurrari berak irakurri nahi duen ala zuk berari irakurtzea nahiago duen. Berak aukera dezala!

Olibatxoren komikian irudi asko ageri zaizkigu, beraz, aprobetxatu irudiak galderak egiteko.

Irakurri ostean, galdetu haurrari:

- Zer egiten dute gure lagunek erabilitako olioarekin?





hautsi ala
bete?

- Zergatik uste duzu egiten dutela hori?
- Etxean ere, egin beharko dugu, ezta?

ANIMO BERAZ!!!

18. KLABELINE

Gernikako piperrak!



Anima zaitetz Klabelinez mozarrotzen! Eta kontatu Klabelinek dioena, bera izango bazina bezala.

19. IRRIEN LAGUNAK KLUBA

Kontatu haurrari IRRIEN LAGUNAK KLUBAren eguna noiz eta non izango den eta bertan zein egongo diren irudiez baliatuz.

